

# sociedad

## gipuzkoa

[sociedad@noticiasdegipuzkoa.com](mailto:sociedad@noticiasdegipuzkoa.com)

KILOMETROAK 2010 &gt;



Errenterriako neska talde honek jaialdiko leloarekin bat egin zuen.

Pasaia-Lezo lizeoaren deialdiari erantzunez, milaka eta milaka lagunek bat egin zuten atzo Gipuzkoako ikastolen jaialdiarekin. Eguraldia lagun, giro ezinhobeia izan zen egun osoan eta antolatzaileak “erabateko arrakastaz” mintzatu ziren. **TESTUA Elene Arrazola ARGAZKIAK Ainara Garcia**

# BOSTEKOA LEZORI!

**E**SAN eta egin. Pasaia-Lezo lizeoak eskatu bezala, milaka euskaltzale hurbildu ziren atzo Lezora Gipuzkoako ikastolen festarekin bat egin eta ikastetxe berriaren proiektuari bostekoa ematera.

Eguraldia lagun, goiztiarrenak Saldise plazan bildu ziren zabaltze ekitaldia ikusteko, baina jende gehiena eguerdi aldera ailegatu zen, euri tantek festa mehatxatuko

zutela zirudienean. Zorionez, lainoek euriari eutsi zioten eta giro aparta izan zen iluntzera arte.

Ohi bezala, lehenbiziko orduak lasaienak izan ziren eta familia mordoak zirkuitua egitera animatu zen. Bittor Goikoetxea, Maria, Ixiar, Iker eta Aitorrekin joan zen maldan gora Darieta gunerantz. Lezotarrak izanik, “pozik” zeuden festa handiarekin, “txikienentzako eskola berria egiteko balioko duelako”.

**Antolatzaileek jakinarazi zuten, portuko aparkalekua bete egin zen eta tren zerbitzua, kolapsatu**

Momentu horretan, Uk Bill taldea zegoen bigarren guneko oholza gainean eta musikariei begira, Maite, Ariane, Irene, Leire eta Maitane gazteak. “Mungiatik etorri gara eta Des-Kontrolen kontzertua ikusteko irrikan gaude”, esan zuten 17 urteko neskek.

Haiek bezala, ehunka gazte bildu ziren eguerdirako bigarren gunean eta baita bosgarrenean ere, Emon, Betagarri eta Esne Beltzaren

ikuskitzen jende andana erakarri baitzuten herrira.

Horrelakoetan gertatzen den bezala, batzuk disfrutatzeko beste batzuk lan egin behar izan zuten eta atzokoan 1.500 bat boluntario aritu ziren beharrean. Pasaia-Lezo lizeoko ikasle ohiak izanik, Ane, Garbiñe, Udana eta Irunek beren buruak eskaini zituzten garbiketa lanetan aritzeko.

9. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU >